**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **04. Kultura** | **07.** Liburutegia | **450.102** Foru Liburutegia |
| **04.** ***Cultura*** | **07.** *Biblioteca* | **450.102** *Biblioteca Foral* |

2013ko ekitaldirako ezarri den aurrekontuarekin, Foru Liburutegia Zerbitzuak honako xedeak beteko ditu:

1. Irakurzaletasuna, azterlanak eta ikerketa sustatzea, azken finean liburutegi publikoa delako eta aldi berean delako artatzeko eta erreserba egiteko, eta azken baliabidea delako ondare-liburutegi gisa. Horretarako, aldizkari eta egunkarien harpidetza berriak egingo dira eta aldi berean dohaintzak sustatzen jarraituko da. Gainera, argitalpen berriak eta funts historikoak eskuratuko dira erabiltzaileen beharrizanetarako bilduma egokiak edukitzeko. Ikerketa ataletarako diren bilduma hemerografikoetan hutsuneak betetzeko ahaleginak egingo dira prentsa historikoko aleak eskuratuz.

2. Prozesu teknikoen helburua batez ere katalogoak eguneratzea eta hobetzea izango da eta, halaber, Foru Liburutegiak duen funts bibliografiko, hemerografiko eta dokumental oparo eta mardula egokiro hedatzea. Aurreikusita dago eskuratu diren hainbat funts katalogatuko direla eta, aldi berean, atzera eraginkortasunez beste funts batzuk katalogatuko direla. Liburutegiko funtsen eta zerbitzuen zabalkundeari dagokionez, web orria birmoldatu eta eguneratu egingo da pixkanaka.

3. Ondare bibliografiko eta hemerografikoaren artapenari dagokionez, funtsak azaleztatzeko, zaharberritzeko, digitalizatzeko, mikrofilmatzeko eta azidoak kentzeko gaiekin jarraituko da hala egin behar den funtsen kasuan, erraz kontsultatu eta ondo artatu ahal izan daitezen.

   Prentsa historikoaren digitalizazioarekin jarraituko da horren erabilera bermatzeko eta atal horrek duen zabalkuntza hobetzeko.

Con el presupuesto planteado para el ejercicio 2013, el Servicio de Biblioteca Foral ha fijado el cumplimiento de los siguientes objetivos:

1. Fomento de la lectura, estudio e investigación, como biblioteca pública y de conservación, reserva y último recurso como biblioteca patrimonial. Para ello se mantendrán y realizarán nuevas suscripciones a revistas y periódicos a la par que se continuarán fomentando los donativos. Además está prevista la adquisición de novedades editoriales y de fondos históricos para mantener unas colecciones adecuadas a las necesidades de los usuarios. Para cubrir lagunas en colecciones hemerográficas destinadas a las secciones de investigación, se procurará la incorporación de distintos ejemplares de prensa histórica.

2. Los procesos técnicos irán encaminados a reforzar la actualización y mejora de los catálogos y a la correcta difusión del rico fondo bibliográfico, hemerográfico y documental que contiene la Biblioteca Foral. Está prevista la catalogación de distintas adquisiciones, a la vez que la catalogación retrospectiva de otra serie de fondos. En cuanto a la difusión de los fondos y servicios de la biblioteca está contemplada la actualización progresiva de la página web.

3. En lo referido a la conservación del patrimonio bibliográfico y hemerográfico, se continuará con los temas correspondientes a encuadernación, restauración, digitalización y desacidificación de los fondos que lo necesiten a fin de facilitar su consulta y correcta conservación.

   Se continuará con la digitalización de la prensa histórica para preservar su uso y mejorar su difusión.

Aldi berean, erreserbako ondarea zaharberritzen eta digitalizatzen jarraituko da.

4. Bizkaiari buruzko ezagutza zabaltzea.

Helburu horretarako, Kulturako Foru Sailak argitara emango ditu tokiko historiari buruz azken ekitaldian egin diren ikerketen emaitzak, baita kultur intereseko beste hainbat testu ere, gure lurraldearen historiaren inguruko gaien berri ematen dutenak.

5. Literatura sorkuntza bultzatu eta sustatzea.

Ildo honetan, kultur intereseko obrak (literaturakoak) argitaratuko dira, bizkaitarren artean literatura sorkuntza sustatzeko. Horretarako, Bizkaldatz Saria daukagu; izan ere, lehiaketa horri esker, gure herritarren sormena bultzatzea lortzen da eta, aldi berean, liburuak eta liburutegiak oro har sustatzen eta hedatzeko lagungarria izango da.

6. Kultur ekintzak

Programaturiko kultur ekintzak Foru Liburutegiaren funtsak eta zerbitzuak ezagutarazteko eta hedatzeko dira, baita erabiltzaileak trebatzeko ere. Batez ere erakusketak, ikastaroak eta tailerrak nabarmentzen dira, betiere Liburutegian eskaintzen diren instalazioak eta zerbitzuak ezagutzeko lagungarriak diren bisita gidatuak ahaztu barik.

Aldi baterako erakusketen helburua da Foru Liburutegiko funtsekoak diren eta historiaren, literaturaren eta artearen aldetik bereziak eta garrantzizkoak diren lanak herritarrei oro har hurbilaraztea; izan ere, lan horien berezitasunak direla-eta ezin eskura daitezke zuzenean.

Se continuará con la restauración  y digitalización del patrimonio de reserva.

4. Difundir el conocimiento sobre Bizkaia.

A dicho fin, se editarán aquellos trabajos resultantes de las investigaciones  sobre la historia local así como aquellos otros textos de interés cultural, que difundan aspectos relativos a la historia de nuestro Territorio.

5. Impulsar y fomentar la creación literaria.

En este sentido, se editarán obras de interés cultural (literarias) que incidan en la potenciación de la creación literaria entre los/as bizkainos/as. Para ello contamos con el Premio BizkaIdatz, certamen que permite impulsar la capacidad creativa de nuestra población a la vez que ayuda al fomento y difusión del libro y de las bibliotecas en general.

6. Actividades culturales.

Las actividades culturales programadas están destinadas al conocimiento y difusión de los fondos y servicios de la Biblioteca Foral así como a la formación de los usuarios/as. Destacan sobre todo las exposiciones, cursos y talleres sin olvidar las visitas guiadas que ayudan a conocer las instalaciones y servicios que se ofrecen en la Biblioteca.

Las exposiciones temporales tienen como objetivo el acercar al público en general las obras más singulares e importantes desde el punto de vista histórico, literario y artístico pertenecientes a los fondos de la Biblioteca Foral y a las que normalmente no se tiene acceso directo debido a sus peculiares características.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **04. Kultura**<br>**04. *Cultura*** | **07.** Liburutegia<br>**07.** *Biblioteca* | **450.102** Foru Liburutegia<br>**450.102** *Biblioteca Foral* |

Batez ere kultur jardueretan parte hartzeko eta gure herritarren kultur trebakuntza indartzea sustatzeko dira antolatzen diren ikastaroak eta tailerrak.

Los cursos y talleres que se organizan están destinados sobre todo a fomentar la participación en actividades culturales y en potenciar la formación cultural de nuestra población.